

Aura Satz. She Recalibrates Z aretoa



Hacer una diagonal con la música (fotograma). Aura Satz, 2019

Z aretoan, 2022ko otsailaren 4tik martxoaren 27ra

Oramics: Atlantis Anew, Little Doorways to Paths Not Yet Taken eta *Hacer una diagonal con la música* pelikulen proiektzioa

Lotutako jarduera: Aura Satzen eta Garbiñe Ortegaren arteko solasaldia eta pelikulen proiektzioa: Emanaldi aretoan, otsailaren 4an, ostirala, 18:00etan

Argitalpeneko testuen egileak: Jo Hutton eta Xabier Erkizia

Garbiñe Ortegak komisariatzen du *Z aretoa* programa

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK *SHE RECALIBRATES* AURKEZTU DU, *Z ARETOA* PROGRAMARAKO AURA SATZEN PROIEKTUA

Film, marrazki eta objektuen bidez, erakusketak musika elektronikoaren sorkuntzan aitzindari izan diren egileak ditu ardatz

Museoko Z aretoko proiektzio guneak *Oramics: Atlantis Anew*, *Little Doorways to Paths Not Yet Taken* eta *Hacer una diagonal con la música* filmak aurkezten ditu

Artium Museoa, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Aura Satzen *She Recalibrates* erakusketa aurkeztu du (Z aretoa, 2022ko martxoaren 27ra arte) Z aretoaren programaren barruan. Film, marrazki eta objektuen bidez, erakusketak musika elektronikoaren sorkuntzan aitzindari izan den egile talde baten irudia du ardatz, horien artean Daphne Oram, Laurie Spiegel eta Beatriz Ferreyra. Artium Museoa, gainera, liburuxka bat argitaratu du Jo Huttonen eta Xabier Erkiziaren testuekin. *Z Aretoa* programak lurralde zinematografikora jauzi egiten duten artisten eta erakusketa formatua aztertzen duten zinemagileen lanak ezagutarazi nahi ditu, Garbiñe Ortegaren komisariotzapean.

Aura Satzen *She Recalibrates* proiektuak, filmen eta marrazkien bidez, musika-sorkuntza elektronikoaren arloan aitzindari izan diren emakumeen irudia du ardatz. Daphne Oram-i, Laurie Spiegel-i eta Beatriz Ferreyrari eskainitako filmez gain, Satzek paper beltzaren gainean egindako hamabost marrazki aurkezten ditu, eta horien izenburuetan hainbat egileren izenak agertzen dira: Pauline Oliveros, Wendy Carlos, Delia Derbyshire, Eliane Radigue, Else Marie Pade, Maryanne Amacher, Tara Rodgers, Suzux Coulbe edo Micheline Coulombe Saint Marcoux. Erakusketari izena ematen dion sail honetako marrazki bakoitzaren gainean, Satzek lente lentikular bat jarri du.

Bestalde, erakusketan hainbat beira-arasa daude, sortzaile horietako batzuekin lotutako objektuak dituztenak: argazkiak (batean, adibidez, Daphne Oram ageri da 35 mm-ko film gardeneko zerrendak margotzen, Oramics Machine izenekoetan erabiltzeko), liburuak, partiturak eta diskoak, besteak beste

Honako hauek dira Z aretoko proiektzio eremuan ikusi ahal izango diren Aura Satzen filmak:

Oramics, Atlantis Anew. 2011. 7 min.

Daphne Oram britainiar musika elektronikoaren aitzindari eta 1958an BBC Radiophonic lantegiaren sortzaileetako baten omenezko artista-film gisa sortua, filmak hurbileko topaketa bat aurkezten du haren asmakuntza apartarekin, Oramics Machine delakoarekin, Londresko Zientzia Museoan gordetzen dena.

Little Doorways to Paths Not Yet Taken. 2016. 8 min.

Musika elektronikoko konpositoreei eta asmatzaileei buruzko Satzen aurreko filmei jarraituz, film labur honek Laurie Spiegel (j. 1945) konpositore estatubatuarren estudioaren ikuspegi intimo bat eskaintzen du. Musika elektronikoko konposizioengatik eta konposizio algoritmikoko softwaregatik ere ezaguna, filmak parafernalia musikal eta teknologiko mota guztiak erakusten ditu, partiturak, brikolajeko asmakizunak eta jostailu bitxien bildumak barne. Spiegelek ondutako musika elektronikoa aurkezten du soinu-bandak, eta Laurieren off-eko ahotsa musika elektronikoaz eta konposizio prozesuaz hausnartuz.

Hacer una diagonal con la música. 2019. 10 min.

Beatriz Ferreyra konpositore elektroakustiko argentinarrari buruzko film labur bat. Musika konkretuaren aitzindaria izan zen Pierre Schaefferrekin batera 50eko eta 60ko hamarkadetan. Hemen, «soinu bilaketa» grabatzeko teknikak eta soinuaren muntaiari eta espazializazioari buruzko beste gogoeta batzuk aztertzen ditu. Ate kirrinkariak, zakurrak zaunka eta ostadar-eskuak.

Aura Satz

Aura Satzek bere lanean zinema, soinua, performancea eta eskultura uztartzen ditu. Haren lana bentrilokuismoaren ideian oinarritzen da ahotsaren nozio partekatu eta hedatua kontzeptualizatzeko, eta elkarrizketaren bidez egin da, elkarrizketa metodo eta subjektu gisa erabiliz. Ondoko erakundeetan egin ditu performanceak eta erakusketak: Tate Modern (2012), BFI Southbank (2012), the New York Film Festival (2013), Tate Britain (2014), Whitechapel Gallery (2016), NTT InterCommunication Center, Tokyo (2017), SFMOMA, San Francisco (2017/18/19), the Rotterdam Film Festival (2013-20) eta MoMA NY (2020).

Z aretoa

Z aretoa programa ez da zinema ziklo bat areto batean, ezta erakusketa bat ere. Proiektu honek tarteko espazio bat eraikitzen du, zinemaren lurraldera salto egiten duten artisten eta erakusketa-formatua aztertzen duten zinemagileen lanen inguruan hausnartzeko eta haiek ezagutarazteko. Museoan mugimendudun irudia pentsatzeko keinu erabakigarritik sortutako programa da. Hizkuntza zinematografikoa historikoki kategorizatzen duten generoak zalantzan jarriz narrazio-forma berriak bilatzen saiatzen diren egileengana hurbildu nahi dira ikusleak programa honen bidez. Programa honetako lanak zeharkatzen dituzten gogoeten artean, azpimarratzekoak dira egileek taldearenaren ideiarekiko duten interesa eta haren inguruko ikerketa, eta baita elkarrekin pentsatzen eta lan egiten jarraitzeko eta etorkizun partekatu bat proiektatzeko moduak ere.

Artium Museoaren erakusketak

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian. Artium Museoa Bilduma

Pentsatzeko leku bat. Arte-eskola eta -praktika esperimentalak Euskal Herrian, 1957-1979.

2022ko ekainaren 5era arte

Mariana Castillo Deball. Amarantus. 2022ko martxoaren 13ra arte

Txaro Arrazola. Ustiaketa bikaina. 2022ko martxoaren 13ra arte

Aura Satz. She Recalibrates (Z aretoa). 2022ko martxoaren 27ra arte

Ion Munduate. Cuerpos por un momento. 2022ko maiatzaren 5era arte